



## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Funtsezko jarduerari dagokionez, gure enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea garrantzitsua izango da. Esan beharra dago, gure zerbitzuan helburu nagusi bat dagoela, hau da, jarduerak ahalbidetu gure balio-proposamenaren eskaintza garatzeko, bezero potentzialengana iristeko, haiekin eraginkortasunez harremanetan jartzeko eta diru-sarrerak lortzeko.

Ez dezagun ahaztu, funtsezko jardueretan hainbat mota desberdinak sailkatu ditzakegula; Alde batetik, ekoizpena, hau da, zerbitzuko produktuak diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea. Bestetik, arazoak konpontzea. Azkenik, plataformako edo sareko jarduerak, hau da, plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea.

Beraz, informazio guzti hau kontuan izanda, gure ideiaren funtsezko jarduera zerbitzu bat eskaintzea da, hau da, bezeroei lehen eskutik tailer desberdinak eskainiko ditugu. Horrez gain, garrantzia ematen diogu online bidezko zein aurrez aurreko komunikazioari.

Honekin esan nahi duguna da, hainbat aukera desberdin emango ditugula gurekin kontaktuan jartzeko momentuan, horrela, gure bezeroak erosoago sentitu ahal dira. Horrez gain, gure zerbitzuak hainbat helburu desberdin ditu eta haietako bat eta lehen aipatu bezala, tailerra guk geuk eskaintzea da. Bertan, jarduera desberdinez gozatzeko aukera izango dute. Gainera, gure zerbitzua haurren eta helduen arteko harremana sustatzeko oso baliagarria izango da. Zerbitzuak, material desberdina izango du eta jolasteko, une onak pasatzeko... balioko du.

Azkenik, lehen aipatu bezala, garrantzia emango diogu online-ko komunikazioari, hau da, gure zerbitzuan atal honek pisu handia izango du, izena emateko eta beste hainbat ekintza egiteko komunikazioa ezinbestekoa ikusten dugulako. Bezeroak, harremanetan jartzeko aukera hori izango dute, kontuan izanik, gurekin ere komunikazio jarraia izan dezakete, hau da, gure zerbitzuan bertan. Arazoren bat ere izaten badute, gurekin kontaktuan jarri ahal izateko onlineko aukera egongo da, hau da, gure web orriaren bitartez.